

BARBIER JAUNAREN OMENEZKO BATZARREA

Donibane Garazi, 75-XII-21

Euskaltzainburuaren agurrezko hitzak

Donibane Garaziko jaun mera!

Euskaltzaindiko lagunak!

Jaun-andereak, Agur guztioi!

Badu ehun urte Benafarroako hiriburu huntan euskaltzale argi bat sortu zela: Jean Barbier apezka. Haren izenak eta haren distirak bildu gaitu egun hemen, urte muga hori ospatzera. Apez jainkotiar kartsu, euskal teatrogile, musikalaria eta olerkari, Euskal Herriko elezahar eta istorioen biltzaile, euskal eskiribatzaile, dena batetan izan zen Barbier jauna. Haren mendeбетetzea aipu bat egin gabe ezin utz zatekeen iragaite-ra. Eta bidezkoa zen oroitzapen hori, aipamen hori, hemen, Garaziko herri huntan, hura sortu zen herrian berean egitea.

Oker ez banaiz, lehenbiziko aldiz egiten du batzarrea Euskaltzaindiak Donibane Garazi-n. Ezin nagoke, beraz, agur bero bat hiriburu huni eta eskualde huni egin gabe. Benafarroako hiriburua dugu Garazi, eta Benafarroako alderdi hau bihotzean daramagu euskaldun guztiok. Nafarroako erresuma zaharraren seigarren merindatea zen, mendiez haraindikoa han bizi garenontzat, hunaindikoa hemengoentzat, baina edozein modutan ere Nafarroako puska hau Euskal Herriko gordailu apartekoa, euskararen gordeleku preziatu eta hautatua bilakatu zaigu. Horregatik, ordu huntan hunarat itzuliak daude euskaltzale askoren bihotzak. Segur naiz eskualde hunek ez diola traizio eginen bere tradizioari, euskararen aldeko izairari, euskarari beti agertu dion atxikimendu beroari. Beraz, Benafarroako hiriburua dugu Garazi. Eta eskualde hunek hainbeste izen, hainbeste oroitzapen dakarkigu euskaldunoi gogora! Bai. Euskaltzaleek ezin dugu ahantzi hemendik hedatu zela lehenbiziko irrintzina: "Heuskara, ialgi adi kanpora! Heuskara, ialgi adi plazara! Heuskara, ialgi adi mundura! Heuskara habil mundu guzira! Heuskara! Heuskara! Heuskara, ialgi adi dantzara!"

Bai. Euskarak ezagutu duen lehen poeta landua hemengo zen.

Eta haren irrintzinari kasu eginez, hari ihardetsiz eta segida emanaz ondoko mendeetan hainbeste euskaldun presu eta ohoragarri lotu dira gure mintzaira zaharra lantzerantz eta apaintzera. Hoietarik bat, ez azkena eta ez ttipiena ere, Barbier jauna.

Haatik, Detxeparek euskararentzat nahi izan zuen garaitia hori, zorte dohatsu hori, non da, edo zer bilakatu da? Bete ote da Detxepareren ametsa? Bistan da ezetz edo erdizka bakarrik bete dela. Euskal Herria mintzaira zahar baten jabe da, mintzaira berezi baten jabe. Baina gure aitzinekoek mendez-mende eta eskutik eskura bezala gaur artio pasatu diguten mintzaira hau periletan dago, betiko galtzeko periletan.

Eta hain zuzen, euskararen arrangura eta krina aitzineko mendeetan sentitu zuten jaun hoienez itzala behar dugu egun piztu eta guregana deitu, geure lozorrotik iratzar gaitzan, mendez-mende heldu den katea gure gizaldi huntan haustera utz ez dezagun.

Gipuzkoako euskal eskiribatzaile eta poeta handia izan zen Lizardi. Hain zuzen Barbier baino bi urte geroago hila. Hark, bada, hara zer zioen: Olerkaria, poeta deritzan gizatxoro hori gabe ez ohi dela herri pizkunderik, bizterik. Hura gabe herri baten literaturak ez duela bere betea atxemaiten. Herriaren aldeko izpirituzko gudularien artean olerkaria beti dela lehen oinean. Gizon lurkoiek irri egingo diote, behar bada, baina azken finean gerla hoietan berari zor zaizkio garaitiarik ozenenak. (Ikus "Olermen-irakite", *Itz-lauz*).

Olerkari izan genuen Barbier jauna. Herri batek izpirituzko bere borroketan garailari irten nahi baldin badu, gizon hoierei behatu beharra daduka. Barbier-en geriza eta distira lagun dakiola, bada, Euskal Herriari bere kultura propioa begiratzeko krina huntan!

Gainerakoan, Barbier jaunari buruz ez naiz xehetasunetan sartuko, ezen orai segitun entzungo ditugun bi hizlariak hari buruz berria franko emango bait digute.



Haritschelhar jauna, Barbier garaztarraren mendeurren eguneko agurrean

EUSKAL LITERATURA BAXENAFARREN

S. B. Etxarren

Baxenafarra ez da zazpi probintzietarik azkena literatura sailean. Harrigarri da zer idazlari eta pertsulari andana hatxemaiten ahal den hemen gaindi, bereziki herri zonbeitetan.

Euskaraz inprimatu lehen irakurgaia Garaztar batena zen. Buzunaritze Sarrasketako Bernat Detchepeare apezarena. Eyeralarren erretor egon zelakotz, hango elizan bada orroitgaiiu bat ezarria, ezen XVI garren mende erditsutan (1545) agertarazi zuen "Linguae Vasconum primitiae" edo "Euskararen lehen uztak". Bordalen inprimatua, bere latinezko izenburuarekin. Olerki batean dio erraiten euskarari: "Jalgi hadi kanpora. Lenguaietan hintzan estimatze gutitan. Orain aldiz hik behar duk ohoria orotan". Egun ez dugu hemen besterik egiten.

1563. Donibanen berean, huna ordu hetako Jean Etchegaray apezka, olerkari eta pastoral egilea. "Artzain gorria" idatzi dauku, bainan obra hori zorigaitzez galdu da. Halaber Eñaut Logras, Oztibarreko bikario jenerala, euskaraz ari izan da bertsutan. Haren ganik ere ez da deus gelditu.

Bulta ederra baxenafartar idazleentzat. Eta hortan bara. Luzaz ariko dira gure arbasoak lapurtar idazleen irakurtzen. Halere Baigorri ez daude lo. Horgo erretor baten etxean Liburu Saindu bat, euskalarat itzulia, hatxeman zuen kaputxino batek eta surat bota, etzen alabainan latinez kanpo liburu saildurik egiteko baimenik. Ixtorio hori kondatzen dauku Larregi lapurtarrak. Ez daki haatik baxenafartar manuzkrito bat zenez ala Beskoiztar Lizarraga protestantaren Testament berria, orduxean agertua (1571).

Baigorri egon gaiten oraino aipatzeko Etxauz apezpikua (1556-1641), Axularren aingeru begiralea. Duela ehun bat urte hatxemana izan da bere anai bati igorri zion gutun bat, euskaraz, gazte denborakoa.

Orai gira beraz XVII-garren mendean. D'Olce apezpikuak manaturikako prediku bat atera zen, "Pregariak", eta itzuli zutenu baxenafarrerat eta lapurtarrerat (1651).

Orai arte Eliza gizonak zauzkigu lanean ari, literatura ainitzetan gertatu den bezala. Eta Detchepare-n nahikaria, "Euskara, jalgi hadi plazarat", zerbait gisaz obratuko da. Hamazazpigarren mende hori bururatzean. Dazantza baigorriar batek dauku agertzen liburuño bat aberen artatzearen gainean (1692). Xuberotarrez, amikuztarrez eta lapurtarrez eginak izan dira, haren zonbeit itzulpen.

Eta, ideien zabaltzeko, hitzak nunbaitik behar. Domingo Bidegaray baxenafartar fraidea hitztegi bati lotu zen, lau mintzaitetakoa: euskara, kastillanoa, frantsesa, eta latina. Etzen zorigaitzez agertu hitztegi hori, diru eskasez.

XVIII garren mende hortan agertzen da katixima bat, baxenafartarrez, Akizeko apezpikuaren gerizapean bizi diren euskaldunentzat (1750). Ez du hurek idazle izenik berekin.

Orai heldu gira Frantziako Iraultza edo Erreboluziorat buruz. Donaixti Ibarreko erretor dago Lopez eta Aviñunen agertarazten du liburu bat mami aberatsekoa, izenburua luzexkoa izana gatik: "Rodriguez Jesusen conpainiacio Aitarren, giristino perfeccioniaren praticaren parte bat, heuscara-ra itzulia, heuscara beci eztakitenen daco". (1782) Baditu kasik hostehun plama. Eta amikuztarrez idatzia da.

Mende horren erditsuan sortua da Salvat Monho, Ixturitzekoa (1749-1821). Hegaldatu da ardura girixtino olerki batzueri buruz, jeutsi ere laster eztabada frangotarat. Bainan zer idazlea!

XIX garren mendean gira. Baigorriko Gaidarrek 1825ean euskaraz emaiten du protestanten Testament Berria. Hau haatik etzuten erre, jadanik denborak kanbio baitziren.

Noiztenka aditzen da orai bezala kantu berri bat, hala nola "Ene izar maitia, ene xarmegarria", Xarles Belzunce Meharindarrak egina (1796-1872).

Mende hori bestalde saildu mende, Euskal Herrian Frantzian bezala. Mixel Garicoitz sailduaren kusi batek, Ibarre Etcheberrik, ateratzen dauku 1848-an euskarazko lehen Almanaka. Hamalauko gerla artio iraunen du Etxepare bi anaieri esker. Etcheberrik ixtorio saildu bat idatzi zuen, Mixel Garicoitzez liburu bat eta girixtino bizitze baten eremaiteko bide bat.

Garicoitz sainduak ez du berak deus argitaratu euskaraz, bainan badakigu lagundu zuela Jauretche Kanboarra liburu baten idazten Bihotz sakratuaren gainean (1821), ezen Garicoitz Kanbon bikari egon zen.

Ibarla Salaberry, Donibane Garazin notario zenean, San Mateoren Ebanjelioa baxenafarrerat itzuli zuen, mintzairer xotil eta garbi batean, bai eta egin hitztegi labur bat eta olerki zonbeit.

Aita Irisartarra, Ama berriz Baztandarra, Arizkuneko huna Frantxuan Lapitze apezka (1832-1905). Baigorri eta Alzain egonik, Betarramen sartu zen eta joan misionest Hego Amerikarat. Biziki liburu ederra utzi du, damurik bakarra: "San Inazio eta San Frantsesen bizia" (1867).

Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905) Garazi huntan ez dugu ahanzten ahal. Zaron sortua, harat hunat frango ibili zituen nahiz eta fraide talde berri bat eraiki, bainan Baionako apezpikuaren baimenik etzuen egundaino ardietsi. Donibane-ko mendixka baten gainean dagon Mayorga ikastegia, harek zuen eginarazi, asmatu fraide gaztentzat. Biziki idazle ona izana da, bere arrangura guzien artetik. Diote bigarren Axular bat dugula Arbelbide, Euskal literaturan. Lau liburu aipagarri utzi dauzkigu: "Bokazionea", "Erlisioea", "Heren ordena" eta "Igandea". Liburu horietan ezagun da klarki Jainkoaren amodioak zuela zinez sustatu bere bizi guzian Arbelbide garaztarra.

Hogoigaren mende huntan, idazleak nonbre haundiagoan dira, Baxenafarren ere. Luis Etcheverry Donazaharreko deputatuak sortua zuen jadanik *Eskualduna* kaseta Baionan 1887-an. Zuri ta gorrien arteko pataska bere hoberenean zen. Luis Etcheverry-k bazuen nun josta, "Le Réveil basque" deitu kaseta ez baitzagon lo. Ayerrako Arnaud Pochelu hartu zuen Euskaldunaren kudeatzale gisa.

Eta kaseta hortan idatzi zuen ardura, Bitiriñeko Abbadie zenak, Larresoroko ikastegiaren buruzagi famatuak. Labortzari lotu zen bera Ezkandako etxaldean eta artikulu nasaiak ateratu zituen laborarien argitzeko.

Ikastegian bezala bazakien bazterren poxi bat mogitzen, hala nola "Apezka soldado" bere liburuxkan.

Haren ikasle bat Garazik goizegi galdu zuen, 1928-an, Laurent Apesteguy zena, Donazahartarra. Ezagutu dutenek

ez dute ahanztekoa. Hazparnen egon zen misionest, Donibanen eta Miarritzen bikari izan ondoan. "Gure Herria"-n eta "Eskualduna"-n idazten zuen biziki ederki. Ez, Laurent Apeteguy etzen nornahi.

Pettan Erdozaincy-Etchartek Garicoitz sainduaren gainean egin zuen irakurgai bat ohargarria.

Alduden aldiz kaustitzen dugu Etchepare medikua, bere bi liburuekin, "Buruxkak" eta "Beribilez". Fama gaitza bildu zuten obra horiek. Hor ere, Jean Chabagno, Xotroineko misio-nesta, euskarari hain atxikia.

Bidarrain horra Jules Moulier-Oxobi, olerkari bikaina. Haren "Alegiak" haur ainitzek ikasi dituzte eskoletan. "Euskera" deitu agerkariaren 19-garren zenbakian ikusten ahal dugu Buzunaritzeko Martin Landerretche-n itxura, 1927-an hartua, ezen Euskaltzaindikoa zen Detcheparen herritarra, 1930-ean itzalia.

Denek hemen badakigu Donibandar Jean Barbier idazlea (1875-1931) dugula egun ohoratzen. Heren bizi-az eta obraz P. Lafitte mintzatu beharra zaku.

Anartean jo dezagun Ayerrako herrirat. Hor agertzen zauzkigu lerro lerro hiru idazle: Julien Heguy, artikulu egilea. Liburuño batean Jainkoaren Ama ohoratzen du. Gero Simon Durruty. Elizko liburu bat eta katixima bat egin ditu. Hariztoiek aldiz euskal ixtorioa miatu du errotik, eta Duvoisin-en euskal liburu zenbait publikatu.

Ixturitzeko Sauveur Arotzarenak idatzi du Euskal gramatika bat eta *Eskualduna* kaseta kudeatu, bereziki gerla denboran, ez baitzitzen biziki errex.

Labetzen Minvielle medikuak haurren osagarriaz egin du liburuxka bat.

Nola ahantz Iturbide Ahatsa Xurileneko apeza eta Gombault Donazaharreko erretor zena, biak idazle hautak!

Donibane Garazin Sauveur Harruguet uxerra famatua zen. Ipuin zonbeit atera zituen eta Ihauteriko solas batzu, gatz eta bipertsu, sasoin horrek manatzen duen bezala.

Ezterenzubin, Gilentoineko nagusi zena, Mañex Etchamendy, ari izan da luzaz olerki idazten, dena zuhurtzia, eta

olerki horiek agertu ditu Donostian P. Lafittek. Omen aldia egin zioten Donibane Garazin duela 16 urte. Garazin oraino ukan dugu berriki idazle gazte eta erne bat, zorigaitzez arras goizik joan zaukuna. Jatsuko zen Jean Etchepare (1937-1961). Noiztenka gelditurik zagon osagarriaren gatik eta horrela bazuen gogoeta frangoren egitekó parada. Atera dauzkigu beraz supazter xokoan kondatzeko gai diren ipuin eta eleberri pollit batzu.

“Mendekosteko gereziek” balukete segur arrakasta ikasgetitako gazten artean, jadanik frogatua izan den bezala zonbeit lekutan.

—oOo—

Eta hemendik aintzina ditugu oraiko euskalzaleak, bizi direnak eta agian luzazko. Etienne Salaberry, Heletakoa, filosofo bezain idazle on. “Herria” kasetan idazten du aste oroz euskaraz eta erdaraz hogoita hamar urte huntan. Azkarateko Pierre Narbaitz-en liburuak arras ezagutuak dira: “Kattalinen gogoetak”, etxekanderentzat, Mezako liburu bat, “San Frantses Jatsukoa”, hixtoriatzale obraz bestalde. J.-B. Etcheperry Donoztirikoak eman dauzkigu ainitz liburu: “Frantziako Erregina”, “Mixel Garicoitz”, “Obrak mintzo”, “Orotarik” eta abar. Horiek irakurtuz ez da enoatzerik. Euskalzaindi buru-orde, Baigorriko da Jean Haritschelhar. Ikerketa haundiak ibili ditu Etxahounen kantuez eta deneri erakutsi euskal literaturan bazela idaz lan ederrik, eta barnatik miatzeko on zirela, Unibertsitateko grado haundienetararat heltzeko gisan.

Baigorriko da ere Emile Larre, berriki Euskalzaindian sartua eta “Herria” kasetaren zuzendari suharra. Beharriako astekaria agertzen dauku euskararen hedatzeko eta maitarazteko.

Ezterenzubiko Eñaut Etchamendy olerkari eta eleberrikari da. Badakigu zer kantu ederrak asmatzen eta kantatzen dituen, Izurako Ellande Larralde lagun. “Azken elurra” eleberrian euskaldun gazte zonbeiten bizitze dorpea kondatzen du, hiriak bereganatzen dituelarik.

Eta Marie-Jeanne Minaberry, Bankakoa, pertsu, ipuin eta hitztegi egilea, ez dea ezagutua? Agian beste emazte batzu ere lotuko dira hura bezala euskal idaz lanari.

Urepelen badugu aspaldi huntan olerkari bat biziki ona, Xalbador koblaria. Olerkari haundia, gizonaren sendimenduak barnatzen dituenak filosofo batek bezala. Haren "Jainkoa eta ni" olerkiak ukan du aipamen eskualtzaleen artean.

Urepelen oraino kausitzen dugu idazle gazte bat Gehexan Lantziri, kasetetan euskaraz erdaraz bezein trebe. Alduden aldiz Adrien Gachiteguy beneditanoa eta laborantxako gauzetan gain gainetik argitua. Duela dotzena bat urte idatzi zuen laborarientzat liburu bat arras ona Lukuzeko Aguerre kalonje zenarekin batean.

Mixel Itzaina, Aldudekoa hau ere, arras ezagutua da. Laket du olerki idaztea, hala nola "Argi urratzean". Eta badaki ere koblarien sustatzen zoingehiagoka ainitzetan. Hau ez dugu olerkaria, baina Gachiteguy bezala laboraria: Bernard Laxague, Aldudekoa. Duela bostpasei urte egin zuen euskaraz Baigorriko kantonamenduaz miatze-lan bat ederra. Gizon kurritua bestalde, nahi luke euskaldunak poxi bat mogiarazi mozkinen hobetzeko.

Bidarraiko J. P. Iratchet, Landesetan erretor dena, aspaldian ari da olerki eta ipuin jostagarri egiten. Ardura lehen prima irabazten badaki, orai duela hogoitahamar urte bezala, gerlatik landa "Sud-Ouest" kasetak egin zuen zoingehiagoka batean.

Piarres Heguitoa edo Duny-Petre Donibanekoa dugu. "Gure Herria" eta Iruineako "Principe de Viana-n" agertzen ditu olerki batzu ongi apainduak eta, Garaziko Mañexen berriak emaiten, garaztar hutsez ari da, ez baitzauku batere itsusi.

Izpurako Bernard Goity "Gure Herria" ren buruzagia eta "Herria-n" ere ari aste oroz. Aita Etchehandy, Eyeralarrekoak, Beloken kudeatzen du "Ezkila" deitu editorial baliosa. Arnegiko Joseph Camino-k badu árdura zerbait artikulu pollit, hala nola Bokazionen aldizkarian. Mañex Pagola, Landibarrekoak, kantu berri egiten badaki eta bere abertzale sendimenduen agertzen artikulu batzutan. Ezterenzubiko Mañex Goyenetchek "Ikas" batasunaz arta hartzen du.

Ibarlako Jean Erdozaincy "Fedegintza", Fededunen aldizkarian ari da euskara batuan. J. P. Etcheverry Dominxindarrak agertu du duela hiru urte "Familia otoitzean", etxean otoitzaren berritzeko eta sustatzeko. Eta nola ez aipa

hemen hain trebe dugun antzerki egile bat? Daniel Landart, Donoztirikoa. Idatzi ditu eta ainitz lekutan emanarazi "Bai ala ez", "Noiz" eta abar. Badu jite gazte horrek eta, orai arte bezala segituz, urrun joan litake, baitaki euskal arimaren berri eta oraiko patar eta malda guzien berri. Azkaratekoa dugu Jean Irigaray erakaslea, Pariseko "Agro" eskola nagusian ari dena. Badaki euskaraz ere bere erakaspenen emaiten, hala nola Udako Unibertsitatean, eta "Gure Herriak" agertu ditu haren lanak.

Koblarietan ere izan da eta izanzen ausarki Baxenafarren: Allande Ainciburu eta Mixel Legarret Donazaharrekoak, Jean Etchepare (Donapauale), Oxalde eta "Nabarro" (Bidarra), Zubiat (Behorlegi), Peyo Erramouspe (Banka), Larramendy-Gohonetch (Eyerallarre), Apezena (Banka), "Lasarra" (Lasa), León Barbier (Donibane Garazi), J. Barbier idazlearen anaia, Pudent (Arnegi), Hiriarte (Banka), Etcharren (Irulegi). Eta oraikotan: Mendiburu (Heleta), Arrossagaray (Aintzile), Esponde (Jatsu), Alkat (Iholdi), Mendiboure (Heleta), Guillemet, eta abar.

Hots, ezin bururatuzko zerrenda dugu bai idazletan eta bai koblarietan eta segur gira nor edo nor ahanzten dugula. Otoi barka, herriz herri ikertzea ez baita gauza errexa.

Agian horiek guziak nahiko ditugu segitu denek, lehenik irakurtuz eta gero idatziz, euskararen eta eskualdunen onetan. Orduan dugu erranen, Bernat Detcheparek bezala: "Heuskara da (agertu) kanpora eta goazen oro dantzara."

* * *

LITTERATURE BAS-NAVARRAISE

XVI è siècle: 1545: Bernat DETCHEPARE, de Sarrasquette. Ier livre imprimé en basque.

—1563: Jean ETCHEGARAY, de St-Jean-Pied-de-Port. Une pastorale "Artzain gorria" (Le berger rouge). Arnaüd LOGRAS, vicaire général de Mixe. Leurs oeuvres sont perdues.

—Bible en basque découverte à Baigorri mais interdite et brûlée.

XVII^e siècle: —Mgr. Bertrand D'ETXAUZ (1556-1641) de Baigorri, futur évêque de Tours. Lettre à son frère.

—1651: Pregariak, prône de Mgr. D'OLCE. Traduit en basque.

—1692: Dassança. Recueil de recettes vétérinaires.

—Dominique BIDEGARAY: dictionnaire basque-espagnol-français-latin. Oeuvre perdue.

XVIII^e siècle: —1750: catéchisme bas-navarrais.

—1782: Lopez curé d'Ibarre. Traduit l'oeuvre de A. Rodriguez, jésuite.

—Salvat Monho (1749-1821) d'Isturitz. Poésies religieuses, satires.

XIX^e siècle: Charles de Belsunce (1796-1872) de Méharin compose des chansons.

—1848: J. B. Etcheberry, cousin de St-M. Garicoïts, Ier almanach en basque. Histoire sainte, vie de Michel Garicoïts.

—St-M. Garicoïts collabore au livre de Jauretche sur le Sacré-Coeur (1821).

—François Lapitze (1832-1905) d'Irissarry. Un chef d'oeuvre: vie de 2 basques: St-Ignace de Loyola et St-François Xavier (1867).

—J. P. Arbelbide de Caro (1841-1905) grand écrivain. "La vocation"; "la religion", "le dimanche". Fondateur du collège Mayorga.

—Salaberry, d'Ibarrolle, notaire à St-Jean-Pied-de-Port, traduction de l'évangile. Vocabulaire bas-navarrais. Vers.

—Gaidur, de Baigorri, traduit le Nouveau Testament.

Fin du 19^e siècle - XX^e siècle: —Le député Louis Etcheverry, de St-Jean-le-Vieux fonde le journal Eskualduna.

—Arnaud Abbadie, de Beyrie. Supérieur du séminaire de Larressore-Rédacteur à Eskualduna.

—Jean Barbier, que nous célébrons aujourd'hui. Jules Moulier-Oxobi, de Bidarray, fabuliste.

—Laurent Apestéguy, de St-Jean-le-Vieux. Ancien vicaire de St-J. Pied-de-Port, écrit dans *Eskualduna* et *gure Herria*.

—Dr. Jean Etchepare, des Aldudes: "Buruxkak" - "Beribilez".

—Julien Hégury d'Ayherre - Journalisme.

—Arnaud Pochelu, d'Ayherre. Dirige *Eskualduna*.

—Simon Durruty d'Ayherre - Martin Landerretche, de Bussunarits, fit partie de l'Académie Basque.

—Bertrand Erdozaincy: Vie de St-Michel Garicoïts.

—Sauveur Arotçarena, d'Isturitz - Grammaire basque - Contes - journalisme.

—Haristoy d'Ayherre, historien et éditeur de plusieurs livres basques.

—Harruguet, de St-Jean-Pied-de-Port auteur de contes et de textes de Carnaval.

—Manex Etchamendy, d'Estérençuby. Poète basque. Oeuvres publiées à Bayonne.

—Jean Etchepare, de Jaxu, décédé en 1961 à 24 ans. Contes très jolis.

—etcétera.

Actuellement: —Etienne Sallaberry, de Hélette, écrivain et philosophe.

—Pierre Narbaits, d'Ascarat, si connu.

—J. B. Etcheberry, auteur de plusieurs livres.

—Jean Haritschelar, professeur à l'Université de Bordeaux. Chaire de Langue basque et Vice-président de l'Académie basque. Maire de Baïgorri.

—Emile Larre (Baïgorri), de l'Académie basque. Directeur de *Herria*.

—Enaut Etxamendi (Estérençuby), poète et romancier.

—M. Jeanne Minaberry (Banca). Vers, contes, dictionnaire.

—Le grand poète Xalbador, des Aldudes.

—Mixel Itzaina, des Aldudes, poète et organisateur de concours poétiques. Père gachitigus (Aldudes). Manuel agricole en basque.

—J. P. Iratchet, de Bidarray, conteur et poète.

—Duny-Pétré, de St-Jean-Pied-de-Port, poète et conteur dans *Gure Herria* et *Principe de Viana* de Pampelune.

—Bernard Goïty, d'Ispoure, dirige *Gure Herria*, écrit aussi dans *Herria*. Pin Ehhehando (S. Michel). Publications de Belloc.

—Joseph Camino, d'Arnéguy: journalisme.

—Nanex Pagola, de Lantabat. Ecrit des chansons.

—Manex Goyenetché, d'Estérençuby, secrétaire d'IKAS.

—etcétera.

* * *

Quelques noms de bertsularis bas-navarrais:

—Allande Ainciburu, de St-Jean-Le-Vieux

—Michel Legarret

—Jean Etchepare, de St-Palais

—“Nabarro” de Bidarray

—Zubiat, de Béhorléguy

—Peyo Erramoussé, de Banca

—Larramendy-Gohonetche, de St-Michel

—Apezena de Banca

—“Lasarra”, de Lasse

—León Barbier, de St-J. Pied-de-Port, frère de l'écrivain J. Barbier

—Pudent, d'Arnéguy

—Hiriarte de Banca

—Etcharren d'Irouléguy

Actuellement:

—Mendiburu, de Hélette

—Arrossagaray, d'Aincille

—Esponde, de Jaxu

—Etcétera

P. S. Il convient d'ajouter à la liste des écrivains:

—Le Père Chabagno et le Père Inda des Aldudes.

BARBIER JAUN APEZA

P. Lafitte

Jaunak eta andereak, agur!

Biltzar huntan ospatzen dugun Jean Barbier apez zena, ez dut bera biziki guti baizik ezagutu. Behin apezgai nintzelarik gutun bat igorri nion kontseilu galdez euskaraz hasia nuen lan bati buruz eta poliki ihardetsi zautan. Handik hiruzpalau urteren buruan, Uztaritzeko komentuan ikusi nuen lehen eta azken aldikotz. Bazkaritean auzo kausitu ginen eta alabainan mintzatu. Adiarazi zaitan linguistikaz ez zuela hanbat axolarik eta jende xehearen euskara zitzaiola orotako nausiena. Galde egin bainion zer irakurri behar nuen euskararen hobekien ikasteko, artamendatu zautan hemezortzi mendeko Bernard Larregui-ren ixtorio saildua.

Gerotik ez nuen ukan Barbier jaunarekilako har-emanik, nahiz haren izkiribu guziak ager arau irakurtzen eta miresten nituen.

Apeza hil zen ondoan, Gieure Baionako apezpikuak galdegin zautan Semenario handiko apezgaieri hitzaldi bat egin nezoten Barbier zenaz.

Orduan, xehetasun-keta ibili nintzen haren adixkidetarik eta hartaz mintzatu ziren kazetetarik zer bait ikasi beharrez. Hain xuxen katedraleko bikario zen J. B. Barbier haren iloba, eta osaba zenaren paperak haren eskuetan ziren. Eskolagunak baiginen Jean-Baptiste eta ni, nasaiki argitu ninduen

harek ere. Eta orai badakizue ene iturburu gehienen berri, nahiz geroztik ene notak guti edo aski emendatu diren.

Horiek hola, mintzatuko gira lehenik gizonaz eta gero haren euskal-lanez.

I

GIZONA

Jean Barbier Donibane Garazin sortu zen 1875-eko uztail-ean. Ez dakigu ea ilabetearen zazpia zen ala bederatzia, meriako eta elizako ageriak akort ez izanez. Haren aita zen Jean Barbier, torneatzailea; ama, aldiz Jeanne Officialdeguy. Aitaren arbasoak Irisarritik etorri ziren Donibane huntarat hemezortzigarren mendean, denak torneatzaile eta kadiraegile ziren, bai eta, batto segurik, hezur-zuzentzaile, kondua-ren gaineko... Deitura frango desberdina zuten meriako pape-retan: *Dubarbier*, *Barberena*, *Barbier*, eta bertze. Beharbada daunatugotik, barbegotik jin zitzaioten izen hori. Officialdeguy-tarrak aldiz Mendibetik jalgiak ziren berriki-ago.

Donibane, denbora hartan, orai baino biziki euskalduna-go zitaken. Sort-etxean segurik, Jean ttipiak, euskararekin batean, ikasi zuen zer nahi lekuko kantu eta ixtorio. Gauza hortaz frogatzen bat. Haren anaia Leonard, denek Leon deitzen zuten aita familiakoa ezagutu dutenek ez bide dute aiantzia zer kantari, bertsulari eta kondari alegera zen. Orriot naiz oraino Arnegi - Politenean haren ahotik entzunik berak egini-kako hiru kantu: *Neure andrea andre ttipia*, —*Soldadoa sartzen da gerlak funditua*— eta *Martxoaren bia, ai hi zer egu-na...* Alta, Jakes Pekotx eta Joanes Martxotekin muntatu jos-tetak aipu zituelarik, bazen konpainian ixtant bateko irri! Ez da erraiteko baizik, gure Jeanek sort-etxean aurkitu zuela euskal iturburu bat paregabea, ondoko urtetan ederki baliatu behar zuena.

* * *

Gazterik hauteman zuen bere baitan apezteko deia. Doni-banen hasi eskolak bururatu zituen Hazparden, Larresoron

eta Baionako apezgaitegian. Hartze ona baitzuen alde batetik, eta laneko gogo hainitz bertzetik, ikasle hoberenen lerroan argitzen zuen, frango errexxi. Eginbidezko sailetarik kanpo, bere gustuzkoetarat lerra zitakeen makurrik gabe: hain xuxen, euskal kulturari zitzaion errotik atxikia. Jadanik ari zen euskal kantu eta ipuin biltzen, bai eta bertsu berri ontzen. Orduko zoin gehiagoetan zenbat sari ez zuen irabazi! Hogoi urtetan izkiriatu zuen *Antxitxarburuko buhamien ixtorioa* euskaraz eta, omen, erdaraz nobela bat: *Le roi des bohémiens d'Antxitxarburu*. Lan hau zer bilakatu den ezin jakin dugu, euskarazkoa haatik ager-arazi dugu guhaurek duela lau urte.

1898-an apeztu-ta, Jaun apezpikuak Tolosarat igorri zuen teologo graduketa, eta bi urteren buruan "dotor" itzuli zen astirik galdu gabe.

Berehala Larresoro-ko ikastegirat izendatzen dute. Lau lorietan hurrekilakoa ezin hobeki baderama, bakotxaz ximenki arta hartzen duela. Gazteak ordainez arras atxikiak zaizko. Lanartetan bere euskara aberasten ari du Hiriart-Urruty kazetalari aipatuarekin, eta musika Hiriart - Makola kantika xahar biltzalearekin.

1905-ean, izendatze berri: huna gure Barbier Baionako katedralean bikario. Hiri hortan laster ohartzen dira otoitzeko gizona dela eta arimez osoki hartua: apez laño eta mintza-errexka egiten dute, jende xeheari eta beharduneri emana. Ez doa halere handi-mandien ihesi: hauiek, egia erran, estimatzen dute haren jakitatea ba eta goersten haren hautuzko jendetasuna. Orotaz grifiatua, nehun ez dagoke: parropiako lan guzietara beti prest, aintzina badago kazetalari, olerkari eta euskalzale, sariketa zombaitetan oraino parte hartzen duela, ezin ohorezkiago! Bainan jadanik, bere bizi guzian iraunen dioten buruko min izigarriak hasten zaizko, ez baita batere harrigarri!

* * *

Zortzi urte gisa hortan pasatu-ta, 1913-an Barbier apeza Senpereko erretor emaiten dute. Senpere ez zen gero nola nahiko parropia, bainan Lapurdiko hautuenetarik bat, aspaldi danik erretor kapablenez dohatua. Barbier-en lau aintzine-

koak hasteko, zoin bere jite bereziarekin, apez aipagarriak ziren: Belsaguy, Larreguy, Mentá eta Sancinena.

Funtsean, gure Barbier atseginekin jabetu zen bere parropiatz; amodioz maitatu zuen, jeloski bezala maitatu; eta beti maiteago zuelarik, beti ederrago egin nahi izan zuen, erran nahi baita girixtinoago.

Behinik bat, ez zuen nahi jendeen fedea sendimendu huts izan zadin; ez zituen parropiantak *berotu* nahi bakarrik, bainan *argitu*. Horra zergatik katiximak eta eskola libroak gain-gainetik sustatzen zituen: haurrez berak ere arta hartzen zuen, artetan euskara poxi bat erakusten ziotelarik. Predikue-tan halaber bazuen sineste, eta bera ari zen igandetean Eban-jelio sailduaren erakusten xeheki, kartsuki, hunkigarriki eta zenbait aldiz... luzeki.

Luzetasun hortaz kondatzen dute gertakari bat jostagarria. Baionan izan ziren 1929-an Gorputz Sainduaren besta handi batzu. Charost kardinale omen gaitzeko predikariak behar zuen mintzazu "Camp Saint-León" deitu pentze zaba-lean. Beilariak milaka baziren herri guzietarik etorriak. Iguzki Saindua bere pausa lekuan ohorezki ezarri-ondoan, jendea ixil-ixila belarrean jarri zen...

Kardinale handiak hasten du bere hitzaldi handia. Barbier jauna bere parropianten artean dago: hauk pazientziarekin jarraitzen zaizko predikuari... Oren erdia joana, eta kardinalea beti mintzo. Barbier nardatzen hasia hoinbertze ele eta parabolaz... Berroigarren minuta, ba eta Charost gaizoa sekulako trenpua ari eta ari.. Azkenean Barbier ez dagoke: pastikatua, erraiten dio bere parropiant bati: "Ez duzu luze kausitzen?" Eta gizonak irriño batekin arrapostu: "Bah! gu Senperrarrak usatuak gara!"

Zer nahi den ixtorioxka hortaz, Barbier jaun erretora eliza-gizon ederra zen, elizkizun ospatsuak laket zituen, otoitzez orratuak, kantu altxagarritz apainduak.

Parropia guzia balsan Jainkoaren ganat kudeatzen bazuen ere — Barbier jaunak, ahal zuen guziez arimak bakarka, bederazka, laguntzen zituen saildutasunerat, bakotxa bere dohainez baliaraziz. Gisa hortan, nor harri hainbertze apez-gai eta serora-gai atera baita Senperetik?

Bai, Barbier jauna, errotik apeza zen. Eta uste dugu zinez, ez zituela euskara eta euskal-ohidurak hain artoski sustatuko, ez balitzaio iduritu euskaldungoa bere elizalanetarik bat zela, fedearen eta herriaren sustengu.

* * *

Zorigaitzez ez zen zahartu. Ez omen zuen gaixoak orenik ez jateko ez lo egiteko. Beti alha zituen buruko min saminak eztitu beharrez, medikuen baimenik gabe, beti erremedio sanjan ari omen zen, osagarria fundituz.

Horrela, behar baino goizago itzali zitzaikun 56 urtetan, 1931-ko urriaren azken egunean.

Haren ehortzetarat mundu bat bildu zen, Euskaldun idazle handienetarik baten agurtzeko eta dolu horren deitoratzeko. Jaun apezpikuak ofizialki jakin-arazi zuen zer estimu handitan zaukan diosesak galtzen zuen apez saindu bikaina.

II

BARBIER-EN EUSKAL-LANAK

Barbier jaun apezak lan hainitz egin du euskaraz. Zenbait bere izen-deiturekin agertu ditu, bertzeak izenordez sinaturik: *Ganix*, *Nehor*, *Orduan gazte*, *Haurmaite*, *J. B.* eta azkenik *M.A.B.* Hots, zazpi sinadura orotarat.

Baxenabartar hutsa izana gatik, Lapurdin bizitzearen bortxaz eta Lapurdiko liburuak irakurtzen ohi zituelakotz, euskara lerratu zitzaion (bertze hainitzi bezala) *nafarlapurtarra* erraiten diogun hizkuntzara. Berak *Piases* bere liburuko ondar-plametan aitortzen du gauza hori den gutieneko urrikirik gabe, pentsatuz horrela ez zitzaiola euskara aberatsago eta biziago baizik ateratzen. Bere gisako euskara batu bat egina zuen harek ere.

Eskualduna astekarian eta *Gure herria* errebixtan agertu dira haren lan gehienak, nahiz ondoan berak andana bat libu-

rutan bildu dituen, ez zitezen barreaturik egon, alde bat galtzeko irriskutan.

1910-ean, oraino bikario zelarik, *Nere kantuak* izenaren pean liburuxka bat jalgi zuen, orduko bere hamabi kantu hoberenekin: hor daude hain ezagutuak diren *Amatxo*, *Irrinzina*, *Galerna mendian*, *Garazin gaindi*, *Krixto erregeri*.

Gero, hamar urtez, ez du kasik deus ere agertzen, salbu zenbait kantu 1914-eko gerlari buruz. Bainan ez dago alfer, ari da ipuin eta kantore zahar bil-eta bil... Notak metatzen ditu bere herritarren bizi-modu eta ohidureri buruz.

1920-ean liburu bat argitarat emaiten du: *Ama Birjina Lurden*, Provost apezaren lan batetik itzulia. 1921-ean, lagun batzuekin sortzen du *Gure herria* deitu errebixta, eta hartan ixurtzen bere jakitate gehiena bortz-pasei urtez...

1926-an *Supazter xokoan* liburu ederra ateratzen da: badauzka bi dotzena kondaira, bortz komedia eta kantu bat. Omone onezko obra zinez, merexi bailuke beriz agertzea!

1930-ean *Ixtorio-mixterio*, euskaraz hori ere bainan frantses itzulpena parrean, kasik hitzez hitz.

1931-an *Légendes du Pays Basque d'après la tradition*, frantsesez, bainan bigarren parte batean ixtorio guziak euskaraz emanik. Lan horrek hiru parte ditu: *Laminak*; *Jondoni Petri eta Jesusen* kondairak; *Harritzeko ipuinak*. Lehen bi parteak *Ixtorio-mixterio* liburutik hartuak ziren. Bilduna baliosa, pondu askotan Barandiaran handiaren ikerketak osatzen dituena. Giese jakintsun alemanak lan sakon baten gaitzat hartu baitu, ezin uka ditake munta handiko obra dela, folklorea den bezen batean.

1926-ean eta 1929-an agertu zen bi partetan 520 plama-tako nobela luze bat: *Piarres*. Aipatzen daukun gizon gixakoa segi dezakegu urratsez-urrats bai Senpereko bizi-modu guzietan, bai 1914-eko gerla lekuetan. Arrazoinekin erran dute etnografo argitzat salatua zaikula Jean Barbier obra nasai hortan.

Bertzalde, zazpi komedia jalgi dira haren lumatik: *Kause-rak eta kruxpetak*, *Gauden euskaldun*, *Zubietako debrua*, *Xilintxa sorgina*, *Ezkila xarmatua*, *Sorginak*, eta *Haurrik ez*. Teatro prestu hortan ez xerka ausartzia handirik, ez politika oihurik, ez saminkeriarik. Ordua ez zen hortakoa. Antzerkila-

riak eta aditzaileak josteta eta irri goseago ziren urte hetan, berrikuntza egarri baino. Eta ahusamendu errexak nahi zituzten. Sasoineko galdeari ihardesten zion Barbier-en tea-troak.

Gure apeza Christophe Dufau jaunarekin ari izan zen luzaz euskal kantu zahar biltzen eta *Gure herrian* publikatzen, hitz eta musika. Berrekun bat uste dut bazituztela eskuraturik. Aita Donostia eta Azkueren itsasorat ixur-arazi zuten heiek ere beren ibaitxoak, asko kantore galtzetik begiratu.

Bainan Barbier ez zen bakarrik *bertsu biltzale*; bera ere ari zen *bertsu ontzen*. Haren kantu eta kantikak batetaratuz, balitazke aise *ehunez goiti*, batzu arras ederrak, Elizanburu eta Ibarrarteneri zorrik gabekoak; bertze batzu pollitak, errexak; denak sendimenduz beteak, euskara argi goxo batean troxatuak.

Oixtion aipatu itzulpenen gainerat, Barbier jaunak ez du frantsesez hanbat lan ager-arazi Bizkitartean ezin ahal ditazkegu:

Les bohémiens d'Antchitcharburu (1905-ekoa)

La mort de la Paysanne (1921-ekoa)

La tragique partie de pelote (1923-koa)

Trois legendes sur Axular (1925-ekoa)

Axular et les sorcières (1925-ekoa)

L'abbé Charles Bécas, curé de Bidart (1926-ekoa).

Titulu horiek guziak euskaldungoari eratzikiak ziren, ikusten duzuen bezala.

* * *

Bazaudezte naski, zerk sustatzen zuen Jean Barbier bide hortan sartzerat eta jarraikitzerat.

“Odolean zuela, jitea halakoa, pausu-lan”! Bai, hori erran izan dute. Funtsean zertako ez? Nork gure dohainak, gustuak eta beharrak baditugu.

Bainan irakur-azue *Supazter xokoan* liburuari berak eman zion aintzin-solasa, eta han agertuko zaitzue bertzerik.

Euskal-herriaren plantari so, Barbier apeza griñatua, minberatua zagon: ikusten zituen arrotzak gure lurretan nau-

si paratuak, gure etxaldez jabetzen ari, gure arimez berdin; gure ohidurak, euskara, fedea larre joaki, kanpoko haizek zimeldurik. Orduan, gure arima ez saltzekotan, iduri zitzaion gogor egiteko ordua zela, ez bazen ere berantegi. Eta berak bere neurrian, ahal bezala, lumaz bederen, nahi zuen parte hartu, egiazko Euskaldunen iratzarpenean.

Horra bihotz handi horren xede handia.

Ez zaiku segur itsusi Garaziko seme batek eman baitauku mende hunen hastean oraino ere behar-beharrena zaikun irakaspén hori.